

# B

BARREN

TOKIKOM



**Ni ere banaiz  
BARREN!**



**DANBAKA** ))))

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENADURANGALDEA

# PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debabarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlarri gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:

[www.danbaka.com](http://www.danbaka.com)

irailak

**17**

izena  
emateko  
azken  
eguna

## Eskerrik asko, Elgoibar

Eskerrik asko, Elgoibar, aurtengo gaztien eguna modu berezi honetan bizitzeko aukeria eman diguzulako. Benetan gazte sentidu gara, bizi eta indarrez betiak.

Elgoibarrek bazaukan gaztien egun batian "gazte" sentitzeko biharra, eta horretarako ezinbestekua izan da egun hau gaztien artian antolatzea. Gazte asanbladaren eskutik iritsi zan egun hau antolatzeko aukeria, eta deialdi ireki bat egin eta gero, ekin giñon lanari edade eta kuadrilla desberdiñeko gazte talde batek. Kuadrillen arteko giro ona eta elkarlana bultzatuko zittuan jai herrikoiago eta partehartzailleagua egitia zan helburua. Hein haundi batian uste dogu lortu dogula gure helburua.

Hillabete batzuetako lana izan da, eta trabarik falta izan ez dan arren, hórrek gaintziak eta helmugara iristeko goguak eman digu behar gendun indarra. Haundixa izan da bukaerako sentsazioa, kuadrillen arteko lana eta bertan sentidutakoa haundixa izan dan bezala.

Ez dogu ezer berezirik egin, bultzadatxo bat baiño ez diogu eman herri giruaz gozatu nahi daben gazteriarri. Bistan da Elgoibarko gaztiok 28 kuadrilla eta 400 pertsonako taldea elkartzia lortu badogu, nahi doguna lortzeko eta geure herrixari norabide bat emateko gai garala. Bide honetatik jarraitzia da gure helburua, eta aurrera juan ahala, bidelagun gehiagorekin topatzia gustauko jakun.

Gaztiak gara herrixaren etorkizuna, eraiki daigun guria.

Eskerrak, nola ez, epaille moduan jardun zebeu bost artisteri. Egindako lan gogorak eta erakutsitako profesionaltasunak arbitro aproposak dirala demostrau digue. Eskerrak jai hau egitia posible egin dozueno, eta zelan ez, parte hartu dozuen danoni.

Gaizki esanak barkatu eta ongi esanak kontuan hartu.

Naiara Martin, Ander Izagirre eta Maialen Astigarraga,  
Gaztien Eguna antolatu zebenen izenian.



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Gaztiak gara herrixaren etorkizuna, eraiki daigun guria”**



ESKERTZA

**MARIA ISABEL ZABALETA BERGARETXE**

*Alaitasunaren iturritik  
edan genuen elkarrekin  
oroimenean izango zara  
zu beti gurekin.*

Familiakoak

*2010eko irailaren 1ean hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*







# Bost euro BARRENen alde

Hemezortzi urte dira Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak euskara hutseko astekaria sortu zuenetik, eta gaur, argitalpenik irakurriena da elgoibartarren eta mendararren artean. Ez zen erronka makala izan orduko hura. Gertuko informazioa gaztelaniaz ematen zuten egunkarien artean lekua egin beharra zegoen, eta herritarrek euskaraz irakurtzera ohi-tu. Hala ere, eta euskararen normalizaziorako tresna eraginkorra izan zitekeela jakinda, astekaria doan banatzea erabaki zuten sortzaileek, euskara ahalik eta etxe gehienetara eramateko. Orain, baina, 15.000 euro behar ditu BARRENEK proiektuari eusteko, eta zuen guztion laguntza ezinbestekoa du horretarako. Hala, *Ni ere banaiz BARREN* kanpainaren barruan, elkartasun erretratu aterako dugu gaur zortzi, hilaren 17an, Kultur Etxe aurrean, 19:00etan. Era berean, gaurtik aurrera, bost euroko bono-laguntzak erosteko aukera izango da.

**H**eriko informazioaren loraldi bete-betean ikusi zuen argia BARRENEN estreinako aleak, 1992ko abenduaren 24an. Astero-astero Elgoibarko buruz euskaraz informatzeko asmoz jaio zen astekaria, eta hemezortzi urteren ostean, erreferentziatzko argitalpena bihurtu da, lau herritarretik hiruk irakurtzen dutelako, Aztiker enpresak egindako ikerketaren arabera. Egindakoagatik harro egoteko moduko datua da, baina egoteko barik ekiteko gaudetu. Horretarako, euskara ahalik eta etxe gehienetara doan iritsi dadin, bide lagunak behar ditu BARRENEK. Izan ere, buzoian jasotzen den ale bakoitzak 1,56 euroko kostua du, eta urtean 42 ale argitaratzen ditugu; 4.800 aleko tirada astean.

## BARRENEK daukan estimazioa

Estimazio handia du astekariak herritarren artean. Hala erakusten du Elgoibarko Izarraren eskariz Aztikerrek egindako ikerketak (<http://www.elgoibarren.net/content/view/1806/1/>). Ikerketa horrek dio Elgoibarren eta Mendaron ez dagoela astekaria ezagutzen ez duenik, eta irakurle gehienek euskaraz irakurtzen duten gauza bakarra de-

la. Era berean, inoiz euskaraz ezer irakurri ez duten euskaldun alfabetatu gabeek euskaraz irakurtzeari ekin diote, BARRENI esker. Espektru soziolinguistiko guztiarentzat da erreferente, gainera, astero euskara ulertzen ez dutenen erdiak begiratzen duelako, eta haietako askok erdaraz zerbait argitaratzeko eskatzen dutelako. Bada beste datu esanguratsu bat ere. Astekaria sortu zenean, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak bazkideei bakarrik banatzen zitzaizkien, 600 lagun ingururi. Hortik 4.800 harpidetzara artekoak, berriz, herritarren eskariz egindakoak dira. Hala ere, eta Aztikerren arabera, gehiago dira astero BARRENA irakurtzen dutenak: 8.500 lagun. *ElgoiBARREN.net* atari digitalak, berriz, batez beste, 700 bisita izaten ditu egunean.

## Proiektua hobetzeko apustua

Orain hemezortzi urte sortutako proiektua sendotzeko eta garai berrietara egokitzeko egindako ahalegina ez da debaldekoa izan. Papera baztertu gabe, Internetera jauzi egitea erabaki genuen 2006. urtean, aro digitalean ikusentzunezkoen munduan sartzea ezinbestekoa zelako. Era berean, astekaria bi koloretan argitaratzen lau

*BARREN herriarentzat gauza ona edo oso ona dela uste dute herritarren %99,3k, Aztikerrek egindako ikerketaren arabera. Inork ez du esan BARREN astekaria herriarentzat txarra denik. Beraz, herritarrek BARREN astekaria beharrezkoa dela uste dute.*

koloretan argitaratzen hasi ginen, 2008an. Lan taldea behar berrietara egokitu, soldatak eguneratu, eta apurka-apurka, garai berriari aurre egiteko prestatu ginen.

Produktua hobetzeko egindako ahalegina eta diru sarrerek hartu duten bidea, baina, ezin esan norabide berean doazenik.

BARRENEN, hala ere, garbi geneukan herritarren zerbitzura egonda, produktuaren kalitatea zaintzea eta ahal zen neurrian hobetzea lehenetsi behar genituela, baina horrek hainbat murrizketa egitera behartu gintuen, ezinbestean: paperaren gramajea aldatu genuen, eta ordutik paper finagoan argitaratzen dugu astekaria. Era berean, eta gure inguruko herri aldizkariak egin bezala, zorion-agurrak ataleko agurrak kobratzeari ekin genion. Horrekin ez zen nahikoa, hala ere, eta aurrera egin ahal izateko, langileon soldatak izozteaz gain, banaketa sistema merkatzeko neurriak —pegatinak kentzea— hartzea erabaki genuen urte hasieran, eta urtean, hamabost astetan BARRENI lau orri kentzea, inprenta gastuak murrizteko.

### Diru galerak

Izan ere, gastuak diru sarrerek baino handiagoak izan dira azken urteotan, eta diru galeren joera, gainera, goranzkoa da. Gastuak murrizteko egin ahalak egin arren, defizita handia da, eta horrek, diru galera horrek, astekaria bera eta *ElgoiBARREN.net* Interneteko orainkaria hobetzeko saio guztiak zapuzten ditu. Areago, proiektuaren beraren geroa ere arriskuan jarri dezake, neurriak hartu ezean. Izan ere, erakunde publiko zein pribatuak ematen duten diruak eta BARRENEK bere bitartekoen bidez lortzen duen diruak ez du ematen zuloa estaltzeko beste, eta aurreikuspenak, gainera, ez dira onak.

Ondorengo taula honetan ageri dira Elgoibarko Izarraren Hedabide Sailaren (BARREN eta ElgoiBARREN.net atariaren datuak.

### HEDABIDE SAILA 2010ERAKO AURREIKUSPENA

	GASTUAK		SARRERAK
PERTSONAL GASTUA	176.690	PUBLIZITATEA	90.000
INPRENTA GASTUA	70.350	ELGOIBARKO UDALA	64.000
BANAKETA	17.000	EUSKO JAURLARITZA	48.000
BESTELAKOAK	8.955	FORU ALDUNDIA	26.832
		MENDAROKO UDALA	11.000
		HARPIDETZAK	8.000
		PRIBATUAK	6.900
<b>GUZTIRA</b>	<b>272.995</b>		<b>254.732</b>
		<b>DEFIZITA</b>	<b>- 18.263</b>



Publizitatea da gaur gaurkoz aldizkariaren diru iturri nagusia. Publizitatearen bidez finantzatzen da Elgoibarko Izarraren Hedabide Saila proiektuaren zati handi bat. Hala ere, krisia dela eta ez dela, aurreikuspen txarrenak bete egin dira, eta zaila ematen du aurreko urteetako emaitzak lortzea. Gaitza da bezeroak lortzea, besteak beste, krisiaren ondorioz merkatua bera ere txikitu egin delako. Horregatik, BARRENEK eskerrak eman nahi dizkie egoera zail honetan aldizkarian konfiantza izan duten guztiei.

Dena behar dugu, baina, eta horregatik, BARRENEK beste ahalegin bat eskatu nahi die irakurleei. 15.000 euro behar ditugu, euskararen normalizazioan laguntzeko sortu genuen proiektu honetan dirurik ez galtzeko, eta hori dela eta, bost euro eskatzera gatoz. Egin zaitezte BARRENEN lagun, eta denon artean eman diezaiogun bultzada bat proiektu honi. Bono laguntza erosten duzuenon artean, Belaustegi jatetxean dastatze-menu bat zozketatuko dugu bi lagunentzako, eta zenbaki sariduna 2011ko lehenengo alean argitaratuko dugu, urtarriaren 7ko BARRENEN, alegia.



*Iraia Luetxes eta Sara de Castro BARRENEko banatzaileetako bi.*





IRAILAK 17, barixakua  
Kultur Etxe parean, 19:00etan

# Ni ere banaiz **BARREN!**

**BARREN**ek elgoibartarron diru-laguntza behar du bizirik irauteko.  
Zu ere **BARREN** bazara, azaldu zure babesaren ematera.

Orain arte hala izan da, eta aurrerantzean ere  
denon artean egingo dugu **BARREN**. Eskerrik asko!!









BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: **barren@elgoibarkoizarra.com**.

### Urasandi Berri eta Pilar ikastetxea

Elgoibarko Ezker abertzaleak, Urasandi Berri-Pilarreko proiektu alternatiboaren inguruan izan den jarrera ona ikusirik, eta, era berean, Udalaren jarrera ezkor eta prepotenteaz jabetuaz, zera adierazi nahi du:

Uztailean Urasandi Berriko eremu sozio-sanitarioaren proiektua azaldu genuenetik hainbat herritar hurbildu zaizkigula honi buruz galdezka. Halaber, geuk ere eman dizkiegu proiektuari buruzko azalpenak ingurukoei, eta denek ere interes handiz jarraitu dituztela esan behar da.

Horrez gain, ikusi dugu [www.elgoibartarrok.org](http://www.elgoibartarrok.org) blogean 300 herritar baino gehiago sartu direla proiektu honi buruzko zehaztasunak jakin nahian.

Baina, Elgoibarko Ezker Abertzaleak harriduraz hartu du Urasandi Berri eta Pilarreko proiektu alternatibo honi buruz Alkatetzak egindako deskalkifikazio itsua. Hamar segundo ere ez dituzte galdu PNVko jauntxoek, nagusikeria azalpen garbi batean, hilabeteetan pentsatutakoa –ondo pentsatutakoa, eta eurena baino askoz hobea den proiektua– baztertzeke.

PNVko Udalak –ezintasuna eta gaitasun ezaren adierazle–, Pilarreko erakuntza eskasaren alde egiten jarraitzen du, beste zerbitzuekin, eta anbulategia eta Gurutze Gorriarekin zer egin jakin gabe, Urasandi Berri etxez betetzeko ideia hutsalarekin, gainera.

Udalaren jarrera itxi eta ezezko honen aurrean, Elgoibarko Ezker abertza-

leak etxe guztietara bidaliko du bere proiektu alternatiboaren inguruko esku orria. Elgoibarko herritarrek ikusi ezagutu eta juzgatu dezatela zein den gure herriaren etorkizunera begira proiektu onena, eta behar izanez gero, egin ditzatela hobetzeko proposamenak.

### Elgoibarko Ezker abertzalea ☛

#### Zutik Euskal Herria!

Itxaropenerako garaia bizi dugu, baikor izatekoa. Baina, zerbaiteko garaia bada, lanerako eta elkar bat eginik airtzeko garaia dela esan genezake. Azken aldian, Euskal Herria, eta berarekin euskal herritarrok, fase berri batean murgildu gara. Egungo blokeo, indarkeri, errepresio eta eskubide urraketan errealitatea behin betiko gaintzea posible egingo duen agertokiari atea irekitzen ari zaio. Ezker Abertzaleko oinarriek garranturiko eztabaida eta *Zutik Euskal Herria* ebazpenean jasotako ondorioek batetik, eta EA eta Ezker Abertzalearen arteko akordioak zein gehiengo sindikalarekin batera jotzeak (ekainak 29ko greba...) bestetik, pixkanaka emandako pausoak marraztu dituzte pauso gehiagorekin batera. Esan genezake bide horretan beste pauso bat marraztera datorrela ekintza armatuak etetearen alde bakarreko, eta eperik eta baldintzarik gabeko ETArek erabakia ere. Bakea ezartzeko eta gatazkaren konponbide definitiboaren ildoan, elkarrizketa eta negoziazio esparruak garatzeko ezinbesteko marrokoa den prozesu demokratiko bat egonkortzeko ekarpena egin du ETAK.

Asko dugu egiteko oraindik, ordea, espainiar zein frantziar estatuek herri honen desagertzea helburu, pauso asko emanak dituzte. Horiek, bai, benetan bat eginik. Eskubide kolektibo zein norbanakoon eskubide urraketak normaltasun eta demokrazia jantziarekin saldu nahi dizkigute, baina bada garaia aski dela esateko. Bada garaia pertsona guztiak, aukera guztiak, proiektu guztiak posible izango diren agertoki batera jauzi egiteko.

Bide honetan beste pauso bat ematen laguntzera dator Adierazi EHk Bilbon larunbaterako, hilaren 11rako, deitu duen manifestazioa. 17:30ean hasiko da horrenbeste eragileren babesa jaso duen manifestazio hori. *Denontzat eskubide guztiak Euskal Herri osoan* lemapean herri oso bat biltzea da helburua. Datorren astean Udalbiltza auziaren aurkako epaiketara berriz joan beharko duten zinegotzi abertzaleen aurkako eskubide urraketak bezalakoei frenoa jartzea alegia. Bertan ikusiko gara.

### Elgoibarko Ezker Abertzalea ☛

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo.

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIPADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855






Angel  
Bazterretxea

Iñigo, uste dut aspaldian bizikletan baino gehiago zabiltzala idatzi kontuetan. Zuk ondo dakizu zer den gorputzari neke galantak ematea

eta izerditan blai egotea. Eta ez bakarrik hori: poz galantak ere hartu dituzu esandako bizikleta lasterketetan. Orain, beste lasterketa bat jokatu behar duzu: egunero zerbait idaztea Mendaron gertatzen diren berrien inguruan. BARRENEKO lantxo hau, hilabetean behingoa, zuretzat ez da hain gogorra izango, egunero egin beharrekoarekin alderatuta. Gaur gure zutabe honetako gaia zure lan berria izango da. Hauxe nire galdera: Zer da zuretzako gogorragoa, txirrindularitza ala egunero-egunero Mendaroko berri apurrei buruz egunkari batean idaztea?

### “Zer da gogorragoa, txirrindularitza ala egunero Mendarori buruz egunkari batean idaztea?”

Badakizu gure herri txikietan ez dela berri asko izaten eta egunero zerbait argitaratzeko bila eta galdezka ibili behar izaten dela, baina zu izango zara Mendaron gehien irakurtzen dutena, eta horrek badauka bere garrantzia. Horregatik, Mendaron garrantzitsua egin zara. Izan ditzazula berri ugari eta onak Mendarori emateko. Badakigu beti ezin daitekeela berri onik eman. Hala ere, berririk onena, nire ustez, gauzak diren bezala kontatzea izango da. Bueno, Iñigo, berriak zuk ez dituzu sortuko, zure inguruan izango dira. Guzti honen kanala zu izatea opa dizut nik, eta izan zaitezela kanal sendoa, berri guztiak ekarriko dituen. Eta ekarri ere oso-osorik ekarri, diren bezala. Gero arte, Iñigo, eta ondo hasi zure egiteko berri hau.



Iñigo  
Lazkano

Don Angel, Mendaron berriak ez badago, sortu egiten ditugu! Horren adibideak hor daude: Aingeru Goardako jaiak errekupeatzeko jai batzordean sartu nintzen, eta pare bat ate jo, eta ala, jaiak martxan. Ondorioz, lau edo bost kronikarako gaia hortxe!. Mendaroko Txirrindulari Elkarte-ko zuzendaritzan ere banago, eta antolatzen ditugun ekintzekin urte osoan izaten dut zer kontatua. Azkene-ko sortu dudana *notizia* Arriaga-San Antolingo jaietako *abenturei* buruzkoa izan da. Abuztu eta irail hasiera honetan Mendaron historik ere mugitzen ez denez, zer kontatu handirik ez da izaten, eta aurten, Arriagako jai batzordeak bandejan laga digu *notizia*. Ostiralean, azeituna hezur jaurtiketa antolatu zuten, eta larunbatean, krosa. Eta horra *notizia*: bietan mendarorak protagonista izan dira, nahiz eta gu baino hobekak izan diren bi fenomenorekin topo egin genuen Muñozek eta biok. Eta hori ondo entrenatuta joan ginela! Nik, adibidez, uda osoa pasatu dut karrera hori buruan nuela, parandarik egin gabe eta afrikarren antzera entrenatzen, baina...

### “Berriro jaioko banintz, txirrindulari izaten saiatuko nintzateke eta ez sasiperiodista”


Egia da Mendaron albiste bila ibiltzea ez dela xamurra, baina askoz ere gogorragoa zen neguko egun ilun, hotz eta euritsuetan bizikletan lau, bost edo sei orduko entrenamenduak egitea eta horietan Azkarate hamahiru minutu baino gutxiagoan eta Itziar hamar minutu baino gutxiagoan igotea. Hura bai izaten zela gogorra! Ikaragarri erretzen du urte osoan ia jai egunik ez izateak, lagunak noizean behin bakarrik ikusteak, elikadura zorrotz zaintzeak... Hala ere, eta nahiz eta bizikleta gainean poz egun bat izateko makina bat izerdi eta malko bota behar izan nituen, berriro jaioko banintz txirrindulari izaten saiatuko nintzateke eta ez sasiperiodista.



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala



Ekintza armatuen etena iragarri du ETak.

## Nola hartu duzu ETaren azken erabakia?



**Conchi Rosa**  
41 urte, pentsioduna

Ez dut sinisten. Nik beste agiri-bat espero nuen: armak betirako lagako dituztela entzutea nahi nuen. Hori esaten dutenean sinistuko dut. Azken mezu hau betikoa da, eta ez du ezertarako balio. ETak borroka armatua laga eta talde politiko bat sortu beharko luke.



**Aitor Zabaleta**  
43 urte, kazetaria

Niretzako oso tristea da hiru kaptxadun ikustea Euskal Herriaren izenean berbetan. Bestalde, adierazpen horren zain geunden aspalditik, eta ez dut uste hau denik espero genuen agiria. Behingoz herriari kasu egin eta armak laga beharko lituzke ETak.



**Luis Diego**  
62 urte, jubilatua

Oso ondo iruditzen zait, eta pozik hartu dut albistea. Pauso garrantzitsua da, baina orain Gobernuari tokatzen zaio pausoak ematea. Baldintzak eta oztopoak ipintzen hasi da, eta hori ez da bidea. Ez diot pausoak emateko borondate handirik ikusten Gobernuari.



**Juan Kruz Sasiain**  
47 urte, irakaslea

Itxaropentsu. Printzipioz poztu egin nintzen, baina hainbeste su-eten egon direnez, nahiko eszeptikoa naiz. ETaren jarduna ezagututa ez nuen askoz gehiago espero, baina beste batzuek ere pausoak eman beharko dituzte orain. Ikusi egin beharko da.

- Goian bego -



**Paula Gallastegui Urizar**  
2010eko abuztuaren 2an hil zen.

*Benetako euskaldun  
jatorren kidea  
beti erabili duzu  
nekezko bidea  
zuk ondo bete duzu  
euskaldunen legea*



**EA**KO ALDERDIKIDEAK



**Arratoi handi bat ikusi genuen San Frantzisko kalean:** “Joan zen astean arratoi handi bat ikusi genuen San Frantzisko kalean, eta ez da lehenengo aldia. Lasai-lasai zebilen hara eta hona, kaleko hainbat txoko arakatzen. Sekulako beldurra eta nazka eman zidan. Ez dakit zein izan daitekeen irtenbidea, baina zerbait egin beharra dago. Ibai inguruan ere arratoi asko ibiltzen dira, eta hori oso zikina da. Dagokionari neurriak hartzeko eskatu nahi nioke. Mila esker”.



**Elgoibartarrek txalo gutxi egiten dute kultur ekitaldietan:** “Dantza solteko lehiaketa ikusten izan ginen San Bartolome jaietako jubilatuen egunean, eta ikusleek ez zuten apenas txalorik egiten. Dantzariak bikain aritu ziren, eta ikuskizun ederra eskaini zuten arren, publikoa oso hotz egon zen. Azkenean, antolatzaileek mikrofonotik txaloak eskatu behar izan zituzten”.

**Txarangaren kalejiran udaltzainek ez dute errepidea moztu:** “Aurtengo sanbartolomeetan udaltzainek ez dute bidea moztu txarangaren kalejiretan, eta herriko hainbat lekutan txarangako kideek egin behar izan dituzte udaltzain lanak. Guraso asko joaten dira txarangaren atzetik ume txikiekin edota umeen aulkiekin, eta auto artean ibiltzea arriskutsua izaten da. Datorren urterako kontuan hartzea estatutuko litzaiguke”.



Zuen kezak, gaiderek edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarzarra.com](mailto:barren@elgoibarzarra.com)  
943-74.41.12

## JUDOA BERRIZ ERE ELGOIBARREN MANU ETA EGOITZ MORA

AURREMARIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK  
OLAIZAGA KIROLDEGIAN

ORDUTEGIA

HAURRAK

ASTELEHENA  
ASTEAZKENA  
18:00-19:00

HELDUAK

ASTELEHENA  
ASTEAZKENA  
19:00-20:30

TELEFONOAK:  
943 744 415  
607 225 910  
639 180 339

ANIMA ZAITEZ



## Boluntarioak behar ditu Oin Alaik, haurrak ikastetxera oinez joan daitezzen sustatzeko ekimenak

Ekaineko probarako 40 boluntariok eman zuten izena, baina orain 29 baino ez daude

**O**in Alai egitasmoak boluntarioak behar ditu. Ekainean jarri zuten martxan ekimen hori, haurrak ikastetxera oinez joan daitezela sustatzeko, eta martxan jarri eta lehenengo bi asteetan, 120 umek baino gehiagok eman zuten izena. Era berean, 40 lagun baino gehiago batu ziren, haur haiei Herri Eskolara nahiz ikastolara laguntzeko. Probaldi hura “zinez arrakastatsua” izan zela nabarmendu zuten antolatzaileek gerora, baina ikasturte berria hasi da, eta boluntarioen kopuruak behera egin du. 29 lagun daude izena emanda [joan zen astean prentsaurrekoan emandako datuak dira]; gutxiegi, ibilbideko adar guztiak mantendu ahal izateko. Hori dela eta, antolatzaileek dei berezia egin diete laguntzeko prest dauden guraso eta herritar guztiei.

“Gutxienez bi astean behin boluntario gisa aritzeko prest dagoen jendea behar dugu. Modu horretan bakarrik bermatu daiteke proiektu honen biziraupena eta funtzionamendu egokia. Boluntarioen konpromisoa ezinbestekoa da”. Halaxe azaldu



berri du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. Ikasturtea luzea dela eta boluntario gehiago lortzea nahitaezkoa dela nabarmendu zuen, daudenak erretzeko arriskua dagoelako bestela.

Segurtasunaren gainean ere mintzatu

zen Etxeberria. Oin Alai egitasmoan aurrean bi udaltzain gehiagoren laguntza izango dutela zehaztu zuen, Olasoko errotonda berria martxan dagoenetik, goizetako trafikoa arinagoa delako eta udaltzain gutxiagorekin konpontzen direlako.

## Ibiltzeko nahiz korrika egiteko ibilbide berria zabaldu dute Mintxetan



Oinezkoentzako ibilbide berria zabaldu dute Mintxetan. Estadioaren bueltan egokitu dute zoru sintetikoko pista hori, 1.070 metroko ibilbidea. Zoru berezia da, pausoa ematean gorputzeko artikulazioek asfalto gainean baino gutxiago sufritzeko egokitutakoa, eta hori dela eta, oinezkoentzako baino ez da izango. Pista horrek eta Juan Mugertza krosetako ibilbideak bat egiten duten zatietan, hori bai, zoru sintetikoak ez du bide guztia hartuko, besteak beste, krosa izaten jarraitzeko lur gaineko ibilbidea izatea nahitaezko baldintza delako.

Ibilbide berria egiteko obrak 400.000 euroko aurrekontua izan dute, eta Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalak erdibana ordaindu dute. Nolanahi ere, diru hori pista sintetikoak egiteko ez ezik, beste hainbat lan egiteko ere erabili dutela azaldu du Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak. “Urak bideratzeko kanalizazio lan handiak egin ditugu eta argiteriaren azpiegitura ere jarri dugu, nahiz momentuz ez dugun martxan jarriko”. Horrekin lotuta, alkateak iragarri du aire libreko gimnasio txiki bat jarriko dutela Mintxetako aparkalekuan, iturria dagoen inguruan.

## Pertsonaia **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez presoa (Elgoibar, 1955) kartze-laratu egin dute berriro. Abuztuaren 10ean bidali zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak berriro Martuteneko espetxera. Linfoma bortitza, diabetesa eta psoriasis dauzka Ibañezek, eta uztailaren 16an bihotzekoak eman zion. Donostiako ospitaleko zainketa intentsiboko unitatean ingresatu zuten orduan, eta angliopastia eta stent bat jarri zizkieten. Ibañezi espetxealdi arindua ezarri zioten 2009. urteko otsailean, eta espetxealdi arindua betetzen ari zen orduetik, etxean. Auzitegi medikuak, baina, oinez ibiltzea komeni zitzaiola esan ostean, espetxeratzeko erabakia hartu zuen abuztuan Espainiako Auzitegi Nazionalak.

## Zenbakia **4.673**

Miski gobernuz kanpoko erakundeak 4.673 errifa saldu ditu Elgoibarren Cuzcoko (Peru) haurrentzako dirua batzeko. Gemma Agirregomezkorta Miskiko arduradunak jakinarazi du zozketa ere egin dutela, eta saridunekin ere jarri direla dagoeneko harremanetan. Elgoibartarren esku-zabaltasuna eta herritarrek agertutako elkartasuna eskertu ditu Gemmak, prentsa ohar baten bidez.

## Irudia **Zozketak**

Iñigo Loiola elgoibartarrak irabazi du Idotorbe-San Pedroko jaietan zozketatu zuten motorra. Bi zenbaki atera zituzten, baina epea pasata zenbaki saridunaren jabea agertu ez denez, erreserbako zenbakiaren (5926) jabeari eman diote motorra, araudian jasotako legez.



Agertu da Sallobenteko jaietan zozketatu zuten errifen zenbaki saridunaren (49.966) jabea. Irabazlea zarauztarra da (argazkian eskuinekoa), eta berak eraman du txahala.



## **Ingelesa ikasteko ikastaroa debalde Helduentzako Irakaskuntza Zentroan**

Ingelesa ikasteko oinarrizko ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Helduentzako Irakaskuntza Zentroan (EPA), debalde. Sei-zazpi lagunek eman dute izena orain arte, baina gutxienez hamar laguneko taldea osatu behar da, klase horiek eman ahal izateko. Helduei zuzendutako ikastaroa izango da, doakoa, eta interesatuek hilaren 15era arteko epea dute izena emateko.

## **Urriaren 5ean hasiko da altzariak berritzeko ikastaroa**

Eskuz arte tailerrak altzariak berritu eta birziklatzeko ikastaroa antolatu du. Urriaren 5ean hasiko da ikastaroa, eta asteen bi egunetan emango dituzte eskolak. Martitzenetan, 15:00etatik 17:00etara, eta eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Izena emateko edo informazio gehiago jaso nahi izanez gero deitu ondorengo telefono zenbakietako batera: 615 764 337 (Nieves) / 678 840 451 (Mertxe).



# HONDAKINAK UR AZALERA



**Sanbartolomeetako Gazteen Egunean erreka jaitsiera egin baino egun batzuk lehenago, Deba ibaia garbitu zuten ekimenaren antolatzaileek. Txankakuako zubi ingurutik Madalarainoko ibilbidea egin zuten herriko zenbait gaztek, eta ordura arte Deba ibaiak ezkutuak zeuzkan sekretuak azalerratu zituzten. Ibaitik ateratako hondakinen artean 36ko gerrako lehergailu bat zegoen.**

**Ainhoa Andonegi**

**A** Gazte Asanbladak eta herriko zenbait gaztek erreka jaitsiera antolatu zuten gazteen egunerako, eta egun batzuk lehenago ibaia garbitu behar zutela erabaki zuten. Ibilbidea ezagutzea, leku arriskutsuenak eta txorien kabiak markatzea eta ibaia garbitzea zen antolatzaileen asmoa.

Abuztuaren 20rako jarri zuten hitzordua. Txankakuako zubi ingurutik Madalarainoko bidea egin zuten ibaian barrena, eta ur azpiko hondakinak azalerratu zituzten. Motor bat, koltxoi zahar bat, sakeleko telefonoak, burdin zatiak, zaborra... denetik aurkitu zuten, baina ezusteko handiena 36ko gerrako lehergailu bat aurkitu zutenean hartu zuten.

Madala inguruan aurkitu zuten lehergailua. Naiara Martinek eta Amets Izagirrek azaldu dute nola izan zen guztia: “Metalezko objektu bat aurkitu genuen. Ez zen oso handia, eta gainerako hondakinekin batera laga

**“Ibaia denona da, eta denon artean mantendu behar dugu garbi”**

**Naiara Martin**

genuen ur ertzean, zer zen jakin gabe”. Gerra Zibileko lehergailua zela konturatu zirenean Udaltzaingora deitu zuten, eta haiek jarri ziren Ertzantzarekin harremanetan. Mendaron lehertu zuarazi zuten.

**Ibaia garbitzea guztion zeregina**

Bitxikeria hori alde batera utzita, herritarrek kontzientziazteko mezua zabaldu dute: “Ibaian bizitza dago, eta ibaia bizirik manten-

du behar dugu. Arrainak eta hegaztiak bizi dira, eta landareak ere bai”. Naiara Martinek esan duenez, ibaia garbitzen ari zirela ere jendeak zikina botatzen zuten uretara. “Ibaia denona da, eta denon artean mantendu behar dugu garbi”. Era berean, Deba ibaia Foru Aldundiaren ardura izan arren, Elgoibarko eremua garbitzeko Udalak “gehiago” egin dezakeela adierazi du, eta, erreka jaitsiera antolatu ez balitz, zikinkeria hori guztia oraindik urpean egongo litzatekeela ohartarazi dute: “Pena da erreka jaitsiera antolatu behar izana ibaia garbitzeko”.

**Laguntza gutxi**

Ibaian zer aurkituko zuten ez zekiten arren, hondakinak garraiatzeko baliabideak falta zituztela bazekiten, eta Elgoibarko Udalari eskau zioten laguntza. Udalak, baina, ezetza eman zien. Hala ere, lanari ekin zio-



ten, eta ibaitik ateratako hondakinak Arrantzaleen Pasealekuan lagatzea pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. San Bartolomeak baino egun batzuk lehenago zikinkeria gutia jasota zegoen: "Mankomunitatekoek jasoko zuela pentsatzen dugu, baina ez dakigu seguru"

### Ekintza arrakastatsua

Gazteen Eguneko ekintzetan Elgoibarko gazte guztiek parte hartzea zen antolatzaileen helburua, eta gustura geratu dira egunak izan zuen arrakastarekin. Herriko gazteen asanblada irekia egin zuten Gazteen Eguna antolatzeko, eta guztien artean atera zituzten ideiak, tartean, erreka jaitsiera berreskuratzearna.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko arduradunekin hitz egin zuten Deba ibai-ko uraren egoera ezagutzeko. "Ibaia kutsatuta dagoela esan ziguten, baina apur bat edanda ere, ez zegoela intoxikatze-ko arriskurik". Hortaz, hartutako erabakiarekin aurrera egin zuten.

Abuztuaren 27an, 19:30eko kanpai

**“Argi geratu da gazteok bat eginda gauza asko egin ditzakegula”**

**Naiara Martin**

hotsekin hasi zen erreka jaitsiera. 27 talde zeuden uretan, eta Deba ibaiko ibilbide guztia jendez gainezka. "Hura ikusi genuenean harrিতuta geratu ginen". Era berean, marmitako lehiaketan eta herri bazkarian 400 lagunek hartu zuten parte, eta gaueko soka salto lehiaketan ere jendea salto egiteko zain egon behar izan zen. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete Gazteen Egunean antolatutako ekintzetan parte hartu zuten guztiei, eta baita erreka jaitsiera ikustera joan zirenei ere.

Herriko gazteen ekimenez antolatutako eguna izan zela argi utzi nahi dute.



"Ez dugu inoren laguntzarik jaso. Gazteok bat eginda gauza asko egin ditzakegula argi geratu da". Talde honek aurrera jarraitzeko gogoia dauka, argi daukatelako ezin dela hemen bukatu. Aurrerantzean ere, gazteentzako ekintzak antolatzen jarraituko dute, euren helburua herriko gazte guztiak batzea delako.



*Hondakinaren artean motor bat aurkitu zuten.*




# Eskerrik asko, Juanito!

Hainbeste urtian BARRENi zeure onena eman ondoren,

“Gogoratzuz”  
“Zelan aldatzen diren gauzak”  
“Erretratu zaharrak”  
... eta beste hamaika lan.

agur esan gabe juan zera.

Haundixa da gurian laga dozun hutsunia,  
baiña zurekin bizi izandako uniak akorduan hartu  
eta lanian segittuko dogu.



BARREN astekarixa



*Juanito Gorostiza Garate*  
1926-07-14 / 2010-07-30



**Erretratu zaharra****1960**

Ostiral Santu egunez Mendaron egin ohi zen prozesioko argazkia duzue hau, Miguel Angel Arriolak lagatakoa. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkikoak. Argazkian, ezker-ezkerrean agertzen den korbatadun gizona Txomin Juaristi (†) da. Atzean ageri diren bi danbor joleak, berriz, Eugenio Arriola (†) eta Pedro Zubiaurre (†) dira. Andero lanetan dauden aurreko bi gizonezkoak, berriz: Isidro Arrillaga (†) eta Jose Maria Txurruka. Atzean ageri den anderoa: Martin Ulazia (†). Monagillo joan ziren umeak, honako hauek dituzue: atzean kamerari begira agertzen direnak: Miguel Angel Arriola (ezkerrekoa), eta Pedro Mari Zuloaga (eskuinekoa), eta aurrekoa, Elias Larrañaga. Argazkiaren jabeak ezin izan ditu aingeru jantzita ageri diren bi mutil koxkorak identifikatu.



ESKERTZA

**JOSE ANGEL ETXANIZ ARRILLAGA**

2010eko abuztuaren 17an hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

**EUGENIO FERNANDEZ BARRUSO**

2010eko irailaren 1ean hil zen.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## Giro ona eta jendetza handia Arriagako San Antolin jaietan

**G**iro paregabean joan dira Arriagako San Antolin jaiak. Barixakuan, makina bat jende batu zen txapel eta oliba hezur jaurtiketan lehiatzeko gogoz, eta iluntzean, ehundik gora lagun elkartu ziren bertso afarirako. Andoni Egaña eta Uxue Alberdi aritu ziren bertsoan, eta Gregorio Larrañaga "Mañukortak" jarri zuen ginda, bertsoan aurrena eta txistetan ondoren. Trikitilariak hartu zieten gero txanda, eta goizaldera arte luzatu zen erromeria. Zapatuan, mus txapelketarekin hasi zuten eguna, baina zalantzarik gabe, krosa izan zen eguneko ekitaldi nagusia. 52 lagunek parte hartu zuten, eta David Garcia durangarra izan zen denetan azkarrena, 19:31ko denborarekin. Korrika saioaren ostean, tortilla lehiaketa antolatuta zuten, eta hamabi bikotek parte hartu zuten. Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak eta Aitor Eizagirre *Ronquinak* egindako tortilla saritu zuen epaimahaiak. Gauean, eta jaietako amaiera emateko, jendetza handia batu zen afaltzera eta ondorengo erromeriara. Errifen zozketa ere egin zuten jai batzordekoek, eta hauek izan ziren zenbaki saridunak: karretillarena 3.573 (erreserba 1.874) eta bidaiarena, 4.836 (erreserba 4.083). [www.ElgoiBARREN.net](http://www.ElgoiBARREN.net) helbidean dituzue jaietako argazki gehiago.



David Garcia, aurrena, Karkizanon gora.



Jendetza handia batu zen barixakuko bertso afarian.



Andoni Egaña alkateei kantuan.



Bazkalostean, musean aritu ziren hainbat bikote, jaietarako jarritako toldoetan.



Jai batzordekoak lehiaketako tortillak dastatzen.



Umeak ere gogotik aritu ziren txapelak jaurtitzeko.

# Edu Arrillaga elgoibartarraren lanak, Getxophoto Nazioarteko Argazkigintza Jaialdian

Urriaren 3ra arte argazkilaritzaren erakusleho bihurtuko dira Getxoko kaleak

Irailaren 2an hasiko zen Getxophoto 2010 Nazioarteko Argazkigintza Jaialdia, eta hamasei artistaren lanak jarri dituzte ikusgai, tartean Edu Arrillaga argazkilaria elgoibartarrarenak. Getxo erakuslehotzat hartu eta argazkien bidez artisten euren eta bisitarien arteko konplizitatea lortzea du helburu jaialdi entzutetsu honek, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Edu Arrillagak aspaldikoa du argazkitarako zaletasuna. 14 urterekin oparitu zioten lehenengo argazki kamera, eta 15 urte eskasekin hasi zen argazkiak errebelatzen. Irudia eta Soinua eta Argazkilaritza ikasi zituen Bartzelonan, eta Elgoibarko Ongarri argazkilaritza taldeko kidea da. *El Diario Vasco*, *La Vanguardia* eta *El Correo* egunkariekin kolaboratu izan du, eta *Sokamuturra* izenburuko argazki bilduma ere argita-



*Sokamuturra argazki bildumako irudi bat.*

ratu du. Hain zuzen ere, liburu horretako argazkiak dira Getxon ikusgai jarriko dituztenak. Sokamuturrako une gozoenak zein harrapaketarik larrienak erretratatu zituen bilduma horretarako, eta tentsioa, beldu-

rra, ikarak sorrarazitako irribarrea... sentimendu asko jaso zituen. "Argazki lengoaia zuzena, intentsitatez eta pasioz betea eskaintzen digu Eduardok", nabarmendu du te Getxophotoko arduradunek.

## 'Ciudad de vida y muerte' filmak hasiko du aurten Donostiako Zinemaldiari buruzko zikloa

Urtero legez, Donostiako Zinemaldiari buruzko zikloa antolatu du Ongarri zineklubak hilabete honetarako. Irailaren 16an, eguenean, hasiko da zikloa, Lu Chuan-en *Ciudad de vida y muerte* filmarekin. Iaz, film onenaren urrezko maskorra jaso zuen lan honek Donostian, eta bi egunetan emango dute Elgoibarren, Herriko Antzokian: hilaren 16an, 21:30ean, eta biharamunean, hilaren 17an, 22:15etan.

Rodrigo Garcíaren *Madres & hijas* lana ikusteko aukera izango da hurrena. Donostiako Zinemaldiko sekzio ofizialean eman zuten iaz film hori, eta oso kritika onak izan zituen. Elgoibarren hiru egunez egongo da karteldegian: hilaren 18, 19 eta 20an. Zapatuan, 19:00etan eta 22:15etan; domekan, 19:00etan, eta hilaren 20an, astelehenean, 21:30ean.

Francois Ozonen *Mi Refugio* eta Rachid Bouchareben *London River* filmeek



itxiko dute zikloa. Epaimahaikoen saria jaso zuen *Mi Refugio* filmak iaz Donostian, eta hilaren 23an izango dugu Elgoibarren ikusteko aukera, 21:30ean. *London River* filma, berriz, Zabaltegin eman zuten iaz, eta bai Donostiako Zinemaldian bertan eta baita beste jaialdi batzuetan ere oso harrera ona izan duen filma da. Hiru egunetan emango dute gurean: hilaren 25ean, 26an eta 27an.

## Emi Nogalesen margo erakusketa Kultur Etxean

Emi Nogales artista elgoibartarraren obrekin erakusketa bat osatu dute Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 18ra arte egongo da ikusteko aukera, asteleheneatik zapatara, 19:00etatik 21:00etara.

## Gaur amaituko da begirale ikastaroan izena emateko epea

Begirale ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak, 18 urtez gorakoentzako. Ikastaroa Urtxintxa aisialdi eskolak emango du, eta Jaurlaritzak homologatutakoa izango da. Gaur amaituko da izena emateko epea, eta beraz interesatuek azkar ibili behar duzue. Matrikulak 450 euro balio ditu bailarakoentzako, eta Udalak matrikularen erdia itzuliko die praktikak herrian egiten dituztenei. Informazio gehiagorako: 943 741 050 / 943 257 986.



## Mugertza Kroserako dirua biltzeko, gaueko krosa antolatu du Mintxeta atletismo taldeak biharko

120 lagun baino gehiagok eman dute izena dagoeneko

**M**intxeta atletismo taldeak gaueko krosa antolatu du biharko, 20:00etan hasiko da lasterketa, eta zazpi kilometroko ibilbidea izango du. Plaza Handian hasi eta Madalaraino joango dira korrikalariak, berriz ere Plaza Handiraino itzultzeko. Ondoren, bi buelta emango dizkiote ibilbide honi: Santa Ana, Estazio kalea, Bernardo Ezenarro, Ikastola, Iñiguez de Karkizano, Pedro Muguruza, San Frantzisko, Pedro Migel Urruzuno, Ego-Toki, San Frantzisko, San Bartolome eta Plaza Handia.

120 lagun baino gehiagok eman dute izena dagoeneko, baina interesatuek badute oraindik parte hartzeko aukera. [www.mintxeta.com](http://www.mintxeta.com) webgunean eman daiteke izena, eta parte hartzeko 12 euro ordaindu behar dira. Egunean bertan izena ematen dutenek, berriz, 15 euro ordaindu beharko dituzte. Antolatzaileek Elgoibarko eta inguruko herritar guztiei egin diete lasterketan parte hartzeko deia. Izan ere, krisiak atletismoari ere eragin dio, eta Mugertza krosa antolatzeko ahalik eta diru gehien lortzea da Mintxeta taldekoen helburua.



Sariei dagokienean, gaueko krosetan garaikurrak emango dizkiete maila bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuei, eta irabazleek txapela ere jasoko dute. Korrikalari guztiei poltsa bana emango diete, eta babesleek emandako opariak zozketatuko dituzte partaide guztien artean.

Gaueko krosaz gain, 15 urtetik beherakoentzako lasterketa ere egingo dute 18:00etatik aurrera. Parte hartzea doan izango da, baina gaztetxoek gurasoetako batekin egin beharko dute korrika.

### Atletismoaren jaia

Gaueko krosa girotzeko atletismoaren jaia antolatu dute, eta gaur arratsaldean hasiko dira ekitaldiak. Karpa handi bat jarriko dute Leku Ederreko parkean, eta han afaltzeko aukera izango da gaur, eta bihar. Horrez gain, 19:30ean Baltzola anaiekin kalejira egingo da gaur, eta 21:00etan bertso afaria Ziarda, Mikel Olaizola, Jagoba Arrasate, Fernando Loiola eta Mañu-kortarekin.

## Hiru jokalaria eta entrenatzailea fitxatu ditu areto futboleko Concepto Createch taldeak



Antonio Rodriguez entrenatzailea.

Bihar hasiko du areto futboleko Concepto Createch taldeak denboraldia, eta aurtengo helburua mailaz igozea dela aurreratu dute taldekiek. Horretarako, hiru jokalaria berri eta entrenatzailea fitxatu dituzte: Antonio Rodriguez izango da entrenatzailea, eta jokalaria berriak ondorengoak dira: Igor Zabalo (atezaina), Richard Barreira (hegaleko jokalaria) eta Ruben Gonzalez Montxi (defentsa, baina golegilea ere bai). Zierbaren kontra egingo dute bihar denboraldiko aurkezpena, 17:30ean.

### Frantziako Piriniotara irteera irailaren 18ko astebururako

Morkaiko mendizale elkarteak Frantziako Piriniotarako irteera antolatu du irailaren 18rako eta 19rako. Zapatuan Midi d'Ossauko itzulia egingo dute, eta eguraldiak laguntzen badu, kanpaldia egingo dute gauean, Ayouseko aterpetxe eta lakuen inguruan. Domekan, berriz, Pic d'Ayous eta Chemin de la Mature inguruetan ibiliko dira. Zapatuan abiatuko dira Frantzia aldera autobusez, 5:30ean, eta domeka arratsaldean itzuliko dira. Elkarteko bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 35 euro.

# Aitor Rementeria elgoibartarra saritu dute kirol argazkien lehiaketan

Guztira 75 argazki aurkeztu dituzte aurten



**A**itor Rementeria elgoibartarrak jaso du aurten kirol argazki onenaren saria, herritarren sailean, "igerilaria" izeneko argazkiarekin. Udal Kirol Patronatuak, Gazteria Sailak eta Ongarrik elkarlanean antolatzen duten Kirol Argazkien Lehiaketara era guztietako 75 argazki aurkeztu dituzte aurten, eta parte hartu duten argazkilariak ere jatorri askotarikoak izan dira: 35 urte azpikoen alorrean, Malagako Juan Francisco Colladok irabazi du, eta 35 urtetik gorakoen atalean, Juan Jose Lopez bergararrak irabazi du.

## Elgoibarko 'La naranja mekanika' taldeak irabazi du bailarako futbol 7 txapelketa

Elgoibarko *La naranja mekanika* taldeak irabazi du aurten Debarrenako futbol 7 txapelketa. Mendaroko Kilimon taldearen kontra jokatu zuten finala Unben, eta elgoibartarrek 2-1 irabazi zuten Emozioz beteriko finala izan zela adierazi dute jokalariek. Hasieran mendarorarrak aurreratu ziren markagailuan, eta penaltiz lortu zuten berdinketa elgoibartarrek. Partida amaitzeko bi minutu falta zirela sartu zuten garaipenaren gola.



## Frontenis maratoia, Mendaron

Frontenis maratoia antolatu dute Mendaron astebururako. Zapatuan eta domekan jokatuko dira partidak 25 tantutara, eta finala domekan jokatu dute, 13:00etan. Parte hartzeko baldintza bakarra dago: bikoteak mistoak izan behar dira. Hau da, emakume batek eta gizon batek osatutakoak. Dagoeneko hamar bikotek eman dute izena, baina oraindik badago parte hartzeko aukera. Interesatuak 629 932 458 telefonora deitu dezakete izena emateko.

## Ikastaro berriak eskainiko ditu Kirol Patronatuak

Kirol Patronatuak lau ikastaro berri eskainiko ditu ikasturte honetan. GAP (gluteoak, abdominalak eta izterrak lantzeko ikastaroa), Step saioak eta Pancafit (luzaketak egiteko saioa), eta judoa. Azken ikastaro hau Manu eta Egoitz Morak sustatu dute. Hainbat urtetako etenaren ondoren, Egokran elkarteak sortu dute, eta umeentzako eta nagusientzako saioak emango dituzte. Ikastaro horiei eta ohiko kirol eskaintzari buruzko informazioa eskuratzeko Olaizaga kiroldegira jo daiteke (943 744 415).

## AGENDA

**PILOTA** (Plaza Handian)

**Barixakua, 10**

18:00 Txurruka anaiak – Karmona anaiak

**Ondoren, Gaizka-Sahaztu – Armueta anaiak**

**Domeka, 12**

11:00 Zangitu-Egaña – Ulazia-Arrieta

**Ondoren, Karmel-Gerrika – Uriona-Portu**

**ARETO FUTBOLA** (Kiroldegian)

**Zapata, 11**

17:00 Concepto Createch Elg. – Zierbana (**Sen.**)

**FUTBOLA** (Mintxetan)

**Zapata, 11**

10:30 Elgoibar – Aurrera (**Inf. txiki**)

17:00 Elgoibar – Hamaikak Bat (**Erreg.**)

12:00 Elgoibar – Aurrera (**Ohorezko inf.**)

**Domeka, 12**

11:00 Elgoibar – Aurrera (**Kad.**)

**ESKUBALOA** (Kiroldegian)

**Zapata, 11**

11:00 Sanlo Elg. – Zarautz. (**Kad. neska**)



LANA

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da. ☎ 943 741 600
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ 943 743 196
- 25 eta 40 urte arteko mutil euskalduna behar da komertzial arloan lan egiteko. ☎ 685 714 572
- 2. mailako pintore ofiziala edo pintoretzarako ikasten ari den bat behar da. ☎ 648 210 852

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean. ☎ 941 341 437 / 676 882 373 (Esther)
- Errosario kalean etxebizitza alokagai. 110 metro koadro. Altzariekin. ☎ 943 742 034 / 639 353 331
- Etxea salgai Elgoibarren P. Muguruza etorbidean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Egoera onean. ☎ 943 082 682/ 688 658 183 (Maite)

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Karabana eta autokarabantzako garaje plazak sal-tzen dira. Plaza mugatuak. Erdigunean. Sarrera egokia. Finantzaketa aukera. ☎ 605 713 012
- Renault Space bat salgai. diesela, 99 urtekoa, kilometro gutxi ditu, eta oso egoera onean dago. ☎ 607 584 011

■ ZORIONAK ZURI



- Azkenean 5 urtel Zorionak, **Ihintza**, familiakoen eta bereziki, Aioraren partez.

OSPAKIZUNAK URTEBETETZEA




Zorionak, **Iñaki eta Gaizka**, hilaren 2an urtea bete zutenelako. Etxekoan, eta, bereziki, amama Maribel eta aitxitxa Juan Mariren partez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Egun ederra pasatu genuen, **bikote!** Zorionak! Duna, Edith eta familiako guztien partez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



Zorionak, **Niko eta Leire!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Muxu bat familiakoen partez.

OSPAKIZUNAK URREZKO EZTEIAK



Zorionak, **Vidal eta Fili**, zuen urrezko ezteietan. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Haizeal** Dagoeneko, urte bat! Naia, Intza eta Malenen partez, pa.




• Zorionak, **Mirari**, 39+1 urte egin dituzulako. Ostialetako koadrilakoak.



• Zorionak, **Maddi**, astelehenean 6 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Iker**, 5 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Aimar**, 7 urte egin dituzulako. Guraso, aiton-amon, kone eta Marta.




• Zorionak, **Janire**, irailaren 6an 7 urte egin dituzulako. Etxekoen partez muxu bat.



• Jada ez dituzu 0 urte, **printzesital** Etxekoen eta bereziki, Igorren partez.



• Zorionak, **sorgintxo**, 9 urte egin dituzulako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 8an 2 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Goizeder**, abuztuan urteak egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Irati**, abuztuan 5 urte egin dituzulako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Mirari!** Muxu bat, Eibartik! 40 urte ez dira ezer!



• Zorionak, **Julen**, 3 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.




• Zorionak, gure artera etorri berri den **Nalarari**, eta haren gurasoei.



• Zorionak eta milla muxu, **Ibon**, zure 8 urtebetetzian. Irene eta aittaren partetik.



• Zorionak, **Sare!** Azkar joan da zure lehen urtea. Muxu bat, Mari Matraka!



• Zorionak, bikote! Seguru oso ondo pasako dugula zuen ezkontza egunean, muxu bana koadrilakoen partez!



• Zorionak, **Luken eta amatxo**, uztailean eta abuztuan urteak egin dituzuelako. Muxu bat etxekoen partez.



• Zorionak, **aittita Nikolas**, eta baita zuri ere, **Alain**. Se-gi gogor urte askoan! Etxekoen partez.



• Zorionak, **Maialen eta Beñat**, hilaren 13an 5 eta 3 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen ezkontzogatik. Muxu handi bat, koadrilakoen partez.



• Zorionak, **Jon**, pirata, eta **Nahia**, sorgina, lau urte egin dituzuelako. Pila-pila maite zaituztegu.



• Zorionak, **Lupe eta Jacinto!** 50 urte elkarrekin! Ondo pasa! Seme-alaben eta biloben partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen ezkontzogatik. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **bikote!** Azkenean heldu da zuen eguna. Ondo pasa! Etxekoen eta koadrilakoen partez.



• Zorionak, **bikote!** Zorterik handiena abentura berri honetan! Koadrilakoen partez.



**OKINDEGIA**

12 domeka EIZAGIRRE

**FARMAZIAK**

**24 ORDUZ**

- 10 Garitaonandia
- 11 Etxeberria (Errosario)
- 12 Etxeberria (Errosario)
- 13 Zabaleta
- 14 Ibañez
- 15 Garitaonandia
- 16 Etxeberria (Santa Ana)
- 17 Fernandez

**Ibañez**

Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**

Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik

[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)



**10 barixakua**

**Erakusketa**

**16:00 Argazki erakusketa**

Udalekuetan ateratako argazkien erakusketa jarri du Atxutxiamaiakak, San Bartolome kaleko 33an. Bihar eta domekan 11:00etan zabalduko dute. Umeentzako jolasak ere antolatatu dituzte domekarako.

**Erakusketa**

**19:00 Margo erakusketa**

Emi Nogalesen *Después* margo erakusketa, Kultur Etxean. Hilaren 19ra arte egongo da.

**Atletismo jaia**

**19:30** Trikitilariekin kalejira

Baltzola anaiek alaituko dute giroa.

**21:00 Bertso afaria**

Ziarda, Meabe, Mikel Olaizola, Jagoba Arrasate, Fernando Loiola eta Mañukorta bertsolariekin.

**Aisialdia**

**17:30 Kiribilka**

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2 eta 6 urte arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

*Ikasketa Zentroa*

➔ **INGELESA**  
Ikastaro trinkoak.  
Adin eta maila guztiak.

➔ **ESKOLA-LAGUNTZAK**  
Ikasgai guztiak.

**MATRIKULA IREKITA**

**San Bartolome 25, behea - Tel: 652 763 264 / 696 295 098**

**ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarteko  
HAURRAK ETA GAZTEAK Arloan  
ZUZENDARIA BEHAR DA**

- ◀ Lanaldi osoan jarduteko eta berehala hasteko.
- ◀ Eskatzen da:
  - Haur eta gazteen aisialdian formazioa eta esperientzia izatea. Begirale-titulua beharrezkoa da.
  - Elkartegintza eta euskalgintza ezagutzea
- ◀ Baloratuko da:
  - Debarrena bailarakoa izatea.

Curriculumak bidaltzeko epea  
irailaren 21a arte egongo da zabalik  
([aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com](mailto:aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com)).  
Informazio gehiago: 943 741 626 (Idoia)

**«Ciudad de vida y muerte»  
(Ongarri zine-kluba)**

16, eguena: 21:30  
17, barixakua: 22:15

Txina, 2009. Zuz.: Lu Chuan. Akt.:  
Ye Liu, Yuanyuan Gao, Hideo Na-  
kaizumi, Wei Fan. 132 min.  
1937. urtean Japoniako Armada  
Inperialak Txinako Naking hiriarren

inguruan egindako sarraskia kon-  
tatzen du filmak, hainbat perso-  
naiaren ikuspegia kontuan hartuta.  
Donostiako Zinemaldian Urrezko  
Maskorra irabazi zuen.



## 11 zapatua

### **Kirola**

18:00 **Haurrentzako krosa**

15 urtera arteko umeentzako korrika lasterketa. Gurasoekin parte hartu beharko dute.

### **Kirola**

20:00 **Gaueko krosa**

Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta lehen gaueko herri krosa.

## 17 barixakua

### **Argazkia**

19:00 **BARREN**en aldeko

**argazkia**

BARREN astekariak *Ni ere banaiz BARREN* kanpaina abiatu du, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu aldizkariaren aldeko argazkia ateratzera. Ondoren mokadutxo egongo da. Kultur Etxe aurrean.



## Gure gomendioa

### **Kiribilka**

Gaur, barixakua, 17:30ean Plaza Handian

Kiribil barraskiloari ere amaitu zaizkio oporrak, eta gaur arratsaldean ekingo dio ikasturte berriari. 17:30etik aurrera Plaza Handian izango da bere lagunekin, Elgoibarko umeak eta gurasoak alaitzeko. Urrian 8ra arte barixakue-  
ro etorriko da, Plaza Handia kantuz eta umorez janztera.



**Matrikulazio epea zabalik**

**Irailaren 16tik 30era**

**Elgoibarko Haurreskola**  
943 742 141

ESKERTZA

## ARANTZA BILBAO JAUREGI



2010eko abuztuaren 22an hil zen.

*Zenbat irrifar eta algara  
Arantza, zurekin!  
Oi, herio samin,  
anker eta gordin  
egiten diguk min!  
Eta orain zer egin?  
... Berriari ekin,  
zokondoetan utzi diguzun  
gatz bizi horrekin.*

Institutuko lagun eta lankideak



Elgoibar Arreiture BHI  
Meka GLBHI



gaia

## Hasi da ikasturtea ludotekan eta gaztelekuan

Udako oporren ostean martxan dira berri ere Elgoibarko ludoteka eta gaztelekua, eta ikasturte honetan berrikuntzak izango dira ekipamenduen funtzionamenduan. Ludotekak 5 eta 12 urte bitarteko haurrak hartzen ditu, eta gaztelekuak 13 eta 18 urte bitartekoak. Ekipamenduok orain dela hiru urte jarri zituen martxan Udalak, eta Elgoibarko Izarra kultur elkarteak kudeatzen ditu.

A maitu dira udako oporrak Elgoibarko ludotekan eta gaztelekuan, eta berrikuntzekin ekin diote ikasturte berriari. Ludotekan hobekuntza egitasmoa jarri dute martxan, eta adin tarte desberdinetan banatutako zerbitzua eskainiko dute. Elgoibarko Udalak, Foru Aldundiak eta Elgoibarko Izarrak ludotekako jarduna aztertu dute. Maialen Aranguren Gazteria teknikariak azaldutakoaren arabera, 10 eta 12 urte bitarteko haurrak dira ludotekako erabiltzaileen gutxiengoa, eta, gainera, 5-6 urteko haurrek eta 10-11 urtekoek interes diferenteak dituzte. Hortaz, 10 eta 12 urte bitarteko haurrak Ludotekara erakartzeko eta adin berekoen arteko harremanak sendotzeko, Ludotekako egutegia eta ordutegia erabiltzaileen adinaren arabera bereizteko erabakia hartu du Udalak. Interesatuak irailaren 17ra arte izango dute bazkide egiteko aukera.

### Gurasoekin harremana sendotzen

Hiru urte daramatza Elgoibarko gaztelekuak 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zerbitzu soziohezitzailea eskaintzen, eta ikasturte honetan gurasoekin harremanak sendotzeko apustua egin dute. Irailean zehar ate irekien jardunaldiak egingo dituzte, gaztelekua eta hezitzaileak ezagutzeko, eta edozein motako zalantzak argitzeko. Bestalde, gurasoentzako arreta zerbitzua jarriko dute martxan urte osorako.

Gazteek bi modutan hartu dezakete parte gaztelekuan: batetik, lokalean bertan antolatzen dituzten ekintzetan, eta bestetik, gaztelekuak antolatzen dituen ekintza berezi edo irteeretan.

Gaztelekuko erabiltzaileak.



Ludotekako umeak.



#### Gurasoentzako ate irekiak gaztelekuan

Irailak 14, 15, 16, 21 eta 23  
(20:00etatik 21:00etara)  
Irailak 19 eta 26  
(16:00etatik 17:00etara)

#### Gurasoentzako arreta zerbitzua

Martitzen eta eguenetan:  
15:30-16:30 eta  
20:00-20:30  
Telefonoz: 943 743 228  
e-postaz:  
[gaztelekua@elgoibar.org](mailto:gaztelekua@elgoibar.org)

#### Ordutegia

Martitzena, eguaztena, eguena eta domeka:  
17:00-20:00  
Barixakua eta zapatua:  
17:00-21:00  
Astelehena: itxita

#### Ludotekako ordutegi berria:







Astelehen eta eguaztenetan (16:30-19:30): **5-9 urte artekoak (H4-H5)**  
Martitzen eta eguenetan (16:30-19:30): **10-12 urte artekoak (L4-L6)**  
Barixakuetan (16:30-18:00): **5-9 urte artekoak**  
Barixakuetan (18:00-19:30): **10-12 urte artekoak**  
Bazkide egiteko azken eguna: irailak 17





**Klinikan %15eko  
deskontua  
inplante  
tratamenduetan**

 Aldaz Horts Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

-  inplanteak eta horts fijoak egun batean
-  ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
-  “invisaling” ortodontzi ikusezina
-  haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)
-  pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
-  interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

**943 366 377**

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22  
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

[www.dentalaldaz.com](http://www.dentalaldaz.com)

AENOR

**ER**

Empresa Registrada

ER-0605/2005



# EUSKAL ESAERA ZAHARREN IRAKURKETA PUBLIKOA

Gotzon Garateren *ATSOTITZAK* liburutik

Urriak 8, ostirala Udaletxeko pleno-aretoan  
Goizeko 09:00etan hasi eta arratsaldeko 19:00ak arte

600 elgoibartar behar ditugu  
6.000 esaera zahar irakurtzeko.  
Minutu 1 eta 10 esaera  
zahar bakoitzak.



Animatu eta etorri esaera zaharrak irakurtzera!

943 74 16 26 (Elgoibarko Izarra)  
943 74 43 66 (Udaleko Euskara Saila)

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com)  
[euskara@elgoibar.org](mailto:euskara@elgoibar.org)

Izena emateko azken eguna: irailak 24

Antolatzaileak:



elgoibar  
bizi-bizirik

Babesleak:

